



MENDIZALEAK AURRERA

Mikel UGALDE

*Askatasunaren hegoak
zabaldu nahi izan zituen
Maitere lengusuari.*

Amaika aldiz abestu izan dugun kanta: «Mendi zaleak aurrera, goazen mendi gailurrera...». Aspaldi honetan alper samarturik gabiltzan arren, amaika ibilaldi egin izan dugu Euskalerriko mendietan barrena. Uda partean hondartza maite badugu ere zer gauza mendia baino hoberik jai egunak alaitasunez, anaitasunez, euskaltasunez igarotzeko?

Geure industria giroa gero eta zatarragoa, bihurriagoa, kaltegarriagoa dugu. Industria lanetan gero eta lotuago ikusten dugu gure burua. Lanaren egile ezezik nagusiaren morroi garela ohartzen gara. Lanak, azken sistemaz baliaturik egiten den lanak ez du pertsona askatzen gero eta estuago lotu baizik.

Lanaz gauza asko eta politikak esan izan dira. Lana dugu munduaren aurrerapenaren ardatza, lana dugu

pertsona osatzeko ezinbesteko tresna, lana da gizarte barruan murgilerazten gaituen bide zuzena, lana da gure arnasa, lana da giza nortasunaren ezaugarriarik bikainenetakoa. Erreterria bera, Euskalerrri osoa, lana oinarritzat harturik jaso den herria dugu. Gure gizartean alperra ez dugu maite, besteren bizkar bizi nahian dabilena iguingarri zaigu. Ez dugu horrelakorik geure artean onartzen, ez dugu geure artekotzat ikusten.

Baina gizonak gizonaren onerako antola zezakeen lanak gizonak askatu ez, zapaldu baizik ez du egin. Ez da gaurko kontua, aspaldikoa baizik. Industria bera gizona morrontzapean hartuaz nagusitu zitzaigun. Aurrerapenaren ardatza dugun teknikak ez ditu giza baloreak aintzakotzat hartu. Industriaren mundua, lanaren mundua pertsonarentzat galdua da. Tamala

da hau aitortu beharra, baina egia. Eta bide honetatik ez dirudi gauzak gehiegi aldatuko direnik.

Lanaren mundua galdua dugunez, zergatik ez gara denbora librearena irabazten saiatzen? Zorionez eguneroko lanaldia laburtuaz doa, urteko bakantzak eta oporraldiak gehituaz, astegunetako jaiak direla eta sarritan «zubi» egitea ere egokitzen da. Aurreratuak dauden naziotan ikus dezakegunez, egunetik egunera gero eta denbora libre gehiago izango dugu. Eta hemen dago kakoa. Libre gelditzen zaigun denbora ongi erabiltzen ez badugu, nortasunez eta askatasunez jokatzeko saiatzen ez bagara, modaren eta publizitatearen morrontzapean erortzen bagara, gureak egin du.

Herri txokotik irten beharra, mendira edo hondartzara joateko gose egarria gero eta haundiagoa da. Udaberri eta uda partean hasi goizeko hamarrak aldean eta eguerdira arte etengabeko ilara sortuko da hondartzarako bideetan. Autobusak ere jendez leporaino beteta abiatzen zaizkigu bai Donostiara bai Hondarribira. Etxe zulotatik irtetzeko desiatzen egon ohi gara eguraldi onak argitu bezain laster.

Egungo gizarte egiturak, moldeak, aztertu ohi dituzten soziologo eta psikologoak kezkatu dabilzkigu. Pertsonaren eta munduaren arteko, pertsonaren eta gizartearen arteko harremanen zentzua galduz goaz, ez dugu gure baitan giza ekilibriorik, gizartearen ritmoak, giroaren kutsadurak, jendetzaren pilaketak, gaurko gizona gaisotzeko zorian ipini dezake.

Sarritan hondartzan bertan ez dugu behar hainbateko bakerik sumatzen. Bateko irratiak indarrean jartzea dela, besteko bullak eta zaratak direla, haurrentzat jolasteko behar hainbateko lekurik ezaren arazoa dela. Hondartza zaintzen ez badugu geure kaltetarako izango dugu.

Orobat mendian ere. Lehenago kutsatu gabeko mendietan ibiltzeko zoria izaten genuen, geroztik bideak zabaldu dituzte, autoz edonora iritsi zitezke. Mendiak garai bateko bake giroa galdua duela dirudi. Eta ez goaz bideak zabaltzearen aurka, ezta gutxiagorik ere. Baina gizonak bakea behar du, patxara behar du, lagun artean edo familia giroan harreman gozoak behar beharrezkoak ditu. Eta horretarako giroa behar.

Une honetan Maitere nere lengusu zanz oroitzen naiz. Haren alaitasuna, larunbatez, asteroko lanaldia bukatzen zuenean! Haren irrifar gozoa mendirako joan etorriak lagunartean prestatzerakoan! Gizarte ustelkorrak ez zuen baretzen, gizartearen kutsadurapean ez zuen zorionik aurkitzen, askatasunaren hegoak mozturik sumatzen zituen hiri barruko kaleetako joan etorrietan. Bere azken arnasa ere, ezbeharrez, Pirineoko goi menditan eman zuen Orain mendi zerutiarrean betiko zorionean, bego gure Maitere.

«Mendizaleak aurrera» dio abestiak. Jai egunetan, oporraldietan mendira jotzen duen gazteriak askatasuna maite du, zoriona, bakea, alaitasuna, lagunarte giro garbi eta gozoa barekin ditu. Denbora librearen hauzia irabazia du.